

## Duela 18 milioi urteko habia fosila aurkitu dute Nafarroan



Ezkerrean, laukian, habiaren arrastoak. Eta laukitik kanpo, irudiaren ezkerreko muturrean, ia osorik kontserbatutako arrautza fosila. Eskuinean, habia eta oskolak gertutik. ARG.: © PLOS ONE.

Hegazti urtarren habia fosil bat aurkitu dute Nafarroan, Bardeetan. Arrautzak flamenkoen aurreko espezie batenak dira, eta, haietako bat, ia osorik kontserbatu da 18 milioi urtez. Ikertzaileen esanean, munduko habia fosilik zaharrena da, erregistro paleontologikoan dinosauroen eta beste narrasti batzuen arrautzak ezagutzen badira ere, ez direlako habiatzat hartzen, ez baitute arrautzak erruteko egiturarik.

Fosilen azterketa Euskal Herriko Unibertsitateko eta Espainiako Geologia eta Meatzaritza Institutuko geologoek, eta paleontologo estatubatuar eta brasildarrek egin dute, eta *PLoS ONE* aldizkarian eman dute emaitzaren berri. Aurkikuntza garrantzitsutzat jo dute, ez direlako oskolen zati bakan batzuk, ez eta arrautza bakan batzuk ere. Oskolen ezaugarriek, habia hartzen duen harkaitzaren azterketak eta hezur puskak egoteak ahalbidetzen dute gaur egungo flamenko edo murgilen

aurreko espeziearen habia dela esatea. Espezie hori gaur egun Bardeak diren zingiretan bizi zen (zingira horiek ez ziren oso sakonak, eta klima gaur egungoa baino epelagoa).

Fosila 2004aren bukaeran aurkitu zuen Julio Salillas fontellastarrak, hondeamakina batez ekaitzak eragindako kalteak konpontzen ari zela. Bardeetan, ornodun mota askoren fosilez gain, hegazti, krokodilo eta dortoken arrautzen oskol fosilduak aurkitu dira. ●

## Biodiesel batzuk bakarrik babestuko ditu Europar Batasunak

Biodiesel-ekoizpenari buruzko legedia aldatuko duela iragarri du Europar Batasunak, elikagaiekin lehiatzen duen ekoizpena mugatzeko. Hala, 2020. urtetik aurrera, algetatik, lastotik eta biomasa-hondarretatik eratorritako biodiesela baino ez du bultzatuko Europar Batasunak.

Hori baino lehen, landareak bioerregaiak egitera bideratzeak elikagaiak garestitzea dakarrela salatu izan dute hainbat taldek. Orain, lege-aldaketarekin, badirudi Europar Batasunak arrazoia eman diela neurri batean, % 5era mugatuko baititu elikatzeko balio duten baina biodiesela lortzeko asmoz egindako landaketak. Dena dela, biodiesela ekoiztean ingurumenari eragindako kaltea gutxitzeko helburua ere badu lege berriak, eta horretarako neurriak ere proposatzen ditu.

Espainiako bioerregaien industriak ez du begi onez hartu neurria, dagoeneko % 5 baino gehiago ekoizten baitute helburu horrekin. Aldiz, lege berriak mesede egingo dio mikroalgetan oinarritutako ekoizpenari.

Hain zuzen ere, biodieselerako mikroalgen ekoizpena eraginkorragoa eta errentagarriagoa izateko ikerketa bat koordinatzen ari da Neiker-Tecnalia. Proiektuak Energreen izena du, eta helburua da mikroalgek ohi baino are lipido gehiago ekoiztea eta metatzea, biodieselaren ekoizpena areagotzeko. Horrez gain, mikroalgetatik olio atera ondoren geratzen den hondarra nola aprobetxatu ere aztertzen ari dira, digestio anaerobikoaren bidez biogasa lor baitaiteke. ●



Neiker-Tecnalian mikroalgalg ikertzen dituzte, bioerregaiak ekoizteko. ARG.: © NEIKER-TECNALIA.